



“IN ITINERE” eta “IN MISSION” ISTRIPUAK

EUSKADI 2021

**EAE-ko ENPRESETAKO LANGILEEN IRITZIETAN
OINARRITUTAKO TXOSTENA**

TXOSTEN EXEKUTIBOA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak finantzatutako ikerketa

Bide-Segurtasuneko eta Mugikortasuneko Behatokiaren ikuskapenarekin

QUALIKER ikerketa kontsolidatuko kideek burutu dute ikerkuntza ekimen hau.

<https://www.ehu.es/ehusfera/qualiker/>

Rosa Mindeguia: UPV/EHUko ikerlaria eta Psikologian doktorea.

Rosa.mindeguia@ehu.eus


Goretti Soroa: UPV/EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea, ikerlaria eta doktorea.

Goretti.soroa@ehu.eus

Aitor Aritzeta: UPV/EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea, ikerlaria eta doktorea.

Aitor.arizeta@ehu.eus

PROPOSATUTAKO EREDU TEORIKOA



AZTERTUTAKO ENPRESA-FAKTOREAK

| FAKTOREAK | ALDAGAIAK ETA NEURKETA ESKALAK | DIMENTSIOAK |
|--------------------------|---|--|
| BABES FAKTOREAK | ARRISKUEN PREBENTZIORAKO POLITIKAK <i>"Escala de medición del sistema de gestión de seguridad laboral"</i> (Laneko segurtasuna kudeatzeko sistemaren neurketa-eskala) | PREBENTZIO POLITIKA LAN ARRISKUEI BURUZKO PRESTAKUNTZA PREBENTZIOARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA PREBENTZIO-PLANGINTZA BARNE KONTROLA |
| | SEGURTASUN KULTURA <i>"Escala Safety values"</i> (Segurtasun balioen eskala) | ZUZENDARITZAKO JARRERAK ZUZENDARITZAKO JOKAERAK LANGILEEN KONPROMISOA |
| ARRISKU FAKTOREAK | ESTRESOREAK GIDATZERAKOAN <i>"Escala Commuting Stress"</i> (Joan-etorrien estresa neurtzeko eskala) | BARNEKO ALDAGAIAK KANPOKO ALDAGAIAK |
| | IBILBIDEKIKO ARRISKUEN HAUTEMATEA <i>"Escala de evaluación del riesgo de la vía"</i> (Bide-arriskuekiko ebaluazio eskala) | BIDE-SEGURTASUNA |
| | FAMILIA ETA LANAREN ARTEKO INTERFERENTZIA <i>"Work and family conflict questionnaire"</i> (Lanaren eta familiaren arteko gatazken galdetegia) | FAMILIA ARLOAN LANAK ERAGINDAKO INTERFERENTZIA LAN ARLOAN FAMILIAK ERAGIINDAKO INTERFERENTZIA |
| | ERREKUPERATZEKO BEHARRA <i>"Need for recovery after work"</i> (Lanaren ostean errekuperatzeko beharra) | ERREKUPERATZEKO BEHARRA |
| | FACTORES IN MISSION <i>"Factores de riesgo in mission"</i> (In mission bidezko arrisku faktoreak) | IN MISSION BIDEZKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA IN MISSION BIDEZKO ARRISKU-FAKTOREAK |

AZTERTUTAKO LANGILE-FAKTOREAK

| FAKTOREAK | ALDAGAIK ETA NEURKETA ESKALA | DIMENTSIOAK |
|---------------------------|--|---|
| EMOZIOAK | EMOZIOAK <i>Emovial</i> | ARRETA EMOZIONALA ARGITASUN EMOZIONALA ERREGULAZIO EMOZIONALA |
| NORTASUNA | NEUROTIZISMOA ANTSIETATEA <i>“Escala de medida de ansiedad fisiológica”</i> (Antsietate fisiolojikoaren neurketa tresna) | NEUROTIZISMOA ANTSIETATEA |
| GIDATZEKO ESTILOAK | JOAN-ETORRIAK AUTOAN <i>“Multidimensional Driving Style Questionnaire”</i> (Gidatzeko estiloen dimentsio-anitzeko galderasorta) | AUSARTEGIA OLDARKORRA ANTSIETATE HANDIKOA DISTRITUA ARRETATSUA ESTRESA GUTXITZEN DAKIENA |
| | JOAN-ETORRIAK BIZIKLETAN <i>“Cycling Behaviour Questionnaire”</i> (Bizikletan joatearen moduarekiko galdetegia) | ARAU-HAUSTEAK AKATSAK JOKAERA POSITIBOA |
| | JOAN-ETORRIAK OINEZ EDO GARRAIOBIDE PUBLIKOAN <i>“Walking Behaviour Questionnaire”</i> (Oinez joatearen moduarekiko galdetegia) | ARAU-HAUSTEAK AKATSAK JOKAERA POSITIBOA |

LAGINA ETA PROZEDURA

Ikerketa honetan, lanaldian zehar joan-etorriak egiten ez duten 414 langilek (hau da, in itinere joan-etorria soilik dutenak) eta lanaldian zehar joan-etorria egiten duten 74 langilek (hau da, in itinere eta in mission joan-etorriak egiten dutenak) parte hartu zuten. Guztira 22 enpresatakoak. Datu-basearen arazketa egin ostean, 19 enpresa hautatu ziren ikerketa honetarako.

Bi inkesta sortu ziren: 1. inkesta in itinere bidezko arrisku- eta babes-faktoreak aztertzeko eta 2. Inkesta in mission bidezkoentzako. Web orrialde bat ere sortu zen ekimenaren kudeaketa eta difusiorako. Eta online galderasorta bat sortu zen enpresek izena eman ahal izateko (www.ehuitinere.com).

IKERKETAREN EMAITZA ETA ONDORIO GARRANTZITSUENAK

- Sektore bereko eta antzeko tamainako bi enpresen arteko puntuazioak alderatu dira, zeintzuk laneko arriskuen prebentzio politiketan aurkako puntuazioak zituzten (adib. in Itinere/in mission bidezko istripuen prebentzioarekin eta segurtasunarekin edo formakukntzarekin zerikusia duten aspektuetan). Laneko arriskuen prebentziorako politika gutxiago edo eskasagoak dituen enpresak, aldiz, emaitza hobekak erakutsi zituen honako aldagaietan:
 - a. Lan-zama eta lan-estresa. Lan-jardunaldiaren ostean errekuiperatzeko beharra.
 - b. Estrés eta neke maila, baita hautemandako antsietatea ere.
 - c. Distrakzioan oinarritutako gidatze-estiloak
 - d. Istripu eta arau-hauste kopurua.
- Beraz, laneko arriskuak prebenitzeko politikak hobetzeko jokaera-esparruak proposatzen jarraitu behar da. Batez ere, in Itinere eta in mission bidezko istripuen prebentzioan. Horretarako, segurtasun kultura sustatu behar da, oraindik egiteke dagoen gaia izaten jarraitzen du. Langileek (%68.2) onartzen dute segurtasun kulturaren euren konpromezu maila baxua dela eta ikusi da 19 enpresetatik 17k batez besteko puntuazioaren azpitik daudela.
- Era berean, positiboa litzateke gidatzen ari zaren bitartean telefono mugikorrarekin lan-zereginak egitea saihesteko sentsibilizazio kanpaina bat proposatzea eta, baita lan ibiltarrietan abiadura muga nola gainditu saihesteko ere.